

ANTROPOLOGIA HIZKUNTZALEENDAKO

Paula KASARES

Filologoa eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiarena eleduna

Nire ibilbideaz

Antropologia ikasketek ematen dituzten lan aukerez edo irtenbide profesionalez iharduteko gaia dugun honetan, neure esperientziatik solas egitea egokitu zait. Halere, uste dut hemen bildutakoei, neure ibilbide zehatzaz aritzea baino, hagitz ere baliagarriagoa izanzen zaiela nire kezka edo jakinmin beretsua duten antropologogaiak alor horretan lan egiteko duten aukeren berri ematen badi-zuet. Beraz, halaxe egingen dut.

Antropologia ez da nire lehendabiziko formazioa. Badakit inorena ez dela, Estatuan ikasi dugu-nondako, bederen. Nire lehen ikasketak filologikoak dira. Euskal Filologia ikasi nuen (Deustuko Unibertsitatea 1993) hizkuntzarekin jakinmin handia nuelakoz, jakinmina baino maitemina, lilura erranen nuke. Maitemin horrek berak eraman ninduen hizkuntza plangintzako graduondokoa ikas-tera (EHU 1995), eta hori ere izan zen Antropologia ikastera bultzatu ninduen (EHU, 1999). Niretako, zubi edo lotura naturala zen hizkuntza eta antropologia uztartzen dituen eta egindako bidea bilatze bide nire-nirea izan da (ez preziski hizkuntz antropologo batek egin beharrekoa), beti ere nire kezka eta jakinminak bulkatirik.

Baina Euskal Herriko Unibertsitatean ez nuen ia gairik aurkitu hizkuntzarekin zerikusi zuzenik zuenik. Eta gauza bera gertatu zitzaidan Bartzelonako Universitat Autònoman (UAB, 2001), dok-toretza programa egitera joan nintzelarik. Estatuan antropologia ikasketek arreta eskasa ematen diote hizkuntzaren eta hizkuntzen ukipenaren azterketari eta oraindik ez dut ulertzen zergatik ez den gehiago landu hizkuntzaren erabilera, hizkuntz komunitateen arteko dinamika eta identitate prozesu sozialak aztertze hain emankorra den ikuspegi antropologikoa.

Antropologia ikasle hizkuntzalea nintzela

Lizentziatura ikasten ari nintzelarik ez zitzaidan inolaz ere asegarri gertatu unibertsitate honetan eskuarak izan zuen tokia. Gogoan dut ANKULEGI antropologia aldizkariaren 2. alean, "Hizkuntzaren loturak gizartearen" izenburua duen horretan, Joseba Barriola nire ikaskide eta adis-kideak idatzitako artikulua. Horretan garbi agertzen da antropologogai euskaldunok Euskal Herriko Unibertsitatean antropologia ikastea ezinbertzez jasan genuen frustrazioa. Ez bakarrik eskuaraz irakatsi zizkiguten gaiak hagitz gutxi zirelaketz. Gure ikasketetan ez genuen ezagutu antropologo bat bera ere aztertutako herriaren hizkuntzaren biziraupenari buruz deus esan zuenik (Barriola 1997:24). Lantzen genituen antropologo euskaldunak ere ez ziren horretan salbuespena izan, ez Barandiaran, ez Caro Baroja, ez landutako bertze inor. Antropologo hizkuntzaleondako frustrazio

iturri handi xamarra izan zen. Dena den, unibertsitatean nenbilerarik hizkuntz antropologiaren alorrean nire lehenengo ikerlantxoak egiten hasi nintzen¹.

Diziplinaren izaera eta horren beharraz

Hizkuntzekin interesaturik daudenei erran behar diet tradizio antropologikoan, iparramerikakoan bederen, antropologiak beti aitortu duela hizkuntzaren azterketa bere adar nagusietako bat dela (Hymes 1993:218; Harris 1987:11). Soziolinguistikatik, bertzalde, hizkuntzaren eta hizkuntzen ukipenaren azterketaren ikuspegi antropologikoa berezkitzat hartu izan da. Fasold soziolinguistarendako (1996:18), adibidez, hizkuntz antropologia eta antropologiaren bertze alor bat, komunikazioaren etnografia, soziolinguistikaren adarrak dira.

Nire bilatze bide horretan, interesatzen zitzaidan gaian sakontzeko etorri nintzen berriro unibertsitatera, eta antropologiak ekarpen eta ikuspegi berri anitz ekarri zizkion nire lanari. Nire lehen ikasketek, filologiak, ez zuten kontuan hartu ikuspegi antropologikoa, ia soziolinguistikoa ere ez, ikasgai soil bat kenduta. Hizkuntzalaritza ikasketa planek gabezia handiak dituzte, aski ongi lotzen baitzaizkio hizkuntzalaritza zientifikoaren "aitak" ezarritakoari: "la linguistique à pour unique et véritable objet la langue envisagée en elle-même et pour elle-même" (Saussure 1978:317). Horrela,

"Ver aquí com Ferdinand de Saussure proporciona una coartada impagable a qualsevol lingüista que vulgui prescindir dels parlants, del destí de la llengua o fins i tot de la seva responsabilitat en el manteniment de la diversitat lingüística. I aquesta coartada, reforçada amb l'eslògan de la lingüística contemporània, segons el cual "la lingüística descriu i no prescriu", fa dels lingüistes uns éssers immaculats, dedicats a les llengües en si mateixes i per si mateixes, en consonància amb el rigor que els imposa la disciplina. Així, doncs, la lingüística queda absolta del seu pecat original, però, lluny d'involucrar-se en la redempció, es tanca amb el seu objecte i defuig la temptació" (Junyent 1998:33).

Hizkuntzalaritzaren mugez jabeturik, aiseago uler daiteke Antropologiak nire egiteko profesionalari ahalbidetu zion hobetzea: hizkuntz erabilera, hizkuntz komunitateen dinamika eta gutxiengo/gehiengo harremanak hobeki ulertzea; zio edo aspektu kulturaleri erreparatzea, identitatearen eraikuntza prozesuaren ezagutzea, hizkuntz erabileraren jokabideak edo hizkuntzarekiko jarrerak aztertze galdemodu sakonagoak egitea, hizkuntza-kultura-gizartea alor anitzaren azterketari heltzeko metodologia eta teknika egokiak... eta abar.

Bertzalde, prestakuntza diziplinanitzak balio izan dit, dudarik gabe, hobeki lan egiteko. Hizkuntza, kultura eta gizartearen arteko harremanen azterketa berez hagitiz eremu diziplinartekoa da, eta hala sentitu dute teoriagile ezberdinek, bai hizkuntzalaritzatik, antropologiatik, soziologiatik edo psikologia sozialetik harreman horiek ikasten aritu direnek (Weinreich 1974:27-28; Hymes 1993:218; Sánchez Carrión 1987:19; Fasold 1996:275-365).

¹ Horietako bat, adibidez, gero argitaratua: "Aunitz dakit, bizitzen badakit (Mucho sé si sé vivir). Averamientu dende l'antropollingüística a la comunidad del Valle de Baztán (Navarra)", Cultures revista asturiana de cultura, Academia de la Llingua Asturiana, 10 zkia., Uviéu, 2000, 73 - 104 or.

Diziplinartekotasun horretatik izen ezberdinek izendatzen dute², zeinek bere interes berezia duela, antropologian hizkuntzaren azterketak duen lekua. Hymes (1993:218) eta Duranti (2000:20) egileei jarraikiz, hizkuntz antropologia izena hartu dut nire interes esparrua izendatzeko. Hizkuntz antropologia, Durantiren hitzetan, hizkuntza kulturaren baliabide gisa eta hizketa praktika kultural gisa aztertzen dituen antropologiaren azpialorra da (2000:21).

Honela dio Durantik hizkuntz antropologia diziplinaren berezitasunaz:

"La singularidad de la antropología lingüística reside en su interés por los hablantes como actores sociales, en el lenguaje como condición y resultado de la interacción social, en las comunidades de habla como entidades simultáneamente reales e imaginarias cuyas fronteras están constantemente rehaciéndose y negociándose a través de miles de actos de habla" (Duranti 2000:25-26).

Ekar ditzagun honetara Fasolden hitzak ere, ikusteko zer egoki suertatzen diren antropologo baten kezka eta ikusmoldea hizkuntzen ukipen egoerak aztertzeko:

"Como el psicólogo social, el antropólogo se interesa en cómo se relaciona el hablante individual con la estructura de la sociedad, pero no tanto en lo que afecta a sus propias necesidades psicológicas como en la manera en que esa persona emplea sus elecciones de lengua para revelar sus valores culturales. Dado que un individuo puede hacer elecciones distintas de entre los valores que le permite su cultura en distintas ocasiones, los antropólogos se interesan por el análisis minucioso de las interacciones particulares. Los antropólogos prestan más atención a la mezcla de códigos y a la variación inherente, así como a cambios de código a gran escala, que la que le conceden los sociólogos y los psicólogos sociales. Para un antropólogo cada una de esas variaciones indica un cambio en la expresión de valores culturales, y eso es precisamente lo que importa comprender" (Fasold 1996:293).

Hizkuntz antropologoen lan aukeraz

Nire esparruan antropologoen sarrera errazten duena nire esparruaren egoera gorria bera da, bai eta antropologook ditugun (izan beharko genituzkeen) sentiberatasuna eta ikusmoldea. Nire esparrua hizkuntzena da, ez eskuararena, eskuara hizkuntza bat da munduan diren anitzen (hori bai, gero eta gutxiagoren) artean. 1992an M. Kraussek txosten beldulgari bat plazaratu zuen. Txosten horretan zioenez, berriki sartu garen mende honetan munduan mintzatzen diren 6.000 bat³ hizkuntzen %90 galduko dira edo ezinbertzeko galbidean sartuko dira.

² XIX. mendean, nagusiki, honelako izenak erabili ziren: 'filologia etnologikoa' eta 'etnologia lingüistikoa'. Bigarren munduko gerratik aitzin, Estatu Batuetan izen ezberdinak erabili izan dira ('etnolingüistika', 'metalingüistika', 'hizkuntzalaritza antropologikoa', 'soziolingüistika', 'psikolingüistika' (Hymes 1993:218). Europako erabilera akademinoan, berriaz, 'etnolingüistika' dugu maiz agertzen dena (Duranti 2000:20).

³ Egile ezberdinek bat egiten dute kopuru horretan: Carme Junyent 1998, Miquel Siguan 2001.

Bai, benetan, egoera biloa lazarazteko modukoa da, areago Carme Junyent hizkuntzalari katalinarrak dioen bezala, gogoan hartzen badugu

"...que, en cada llengua que s'extingeix, hi ha una comunitat agredida, a la qual s'ha exclòs del curs de la història de la humanitat" (Junyent 1998:16).

Hizkuntz antropologoek lan egitekoa handia izan daiteke errealitate horretan:

– Hizkuntz aniztasunari eusteko lan esparru teknikoak. Hizkuntz komunitate gutxiagotuen normalizatzeko lanak: ikerketetan, plangintzetan, esku hartze edo interbentzioetan. Administrazioek ez ezik, gobernu kanpoko erakundeek ere ekin ohi diete horrelako lanei. Hizkuntz antropologoek hizkuntzalariek⁴ baino askoz hobeki betetzen ahal dute lan esparru hori, soziologoek bezala, beti ere soziolinguistika prestakuntza beharko dute, batzuek zein bertzeek.

– Hizkuntz aniztasuna dokumentatzeko lanak. Ezagutza eta zientziarako hizkuntz guztien ahal den datu gehien izateak berebiziko garrantzia du. Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera berezia biltzen du bere baitan, errealitatea antolatze eta hautemateko molde berekia: koloreen espektroa edo senitartea izendatzeko eta antolatze modu linguistiko diferentek dira horren adibideak. Dokumentatu beharreko hizkuntzak Hegoamerikan, Ozeanian eta Afrikan dira gehienbat. Lan horretan aritzen diren hizkuntz antropologoek hizkuntzalaritza deskriptiboaren prestakuntza beharrezkoa dute.

– Bestalde, ez dakigu hizkuntz galtze horrek zer ondorio ekarriko duen. Gizakiok historian hizkuntz aniztasuna egokitze edo doitze prozesuaren baliabide gisa garatu dugu eta ez dakigu baliabide horren galtzeak zer ekar dezakeen. Gai polita antropologoondako.

– Bertzalde, UNESCO erakundeak urte honen hasmentan Parisen aurkeztu zuen bere Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing, berriro sartu du eskuara desagertzeko arriskuan dauden munduko hizkuntzen artean. Urrutira joan gabe, Euskal Herrian berean aztergai ederra dugu: hizkuntzarekiko atxekimendu jarrerak, hizkuntz gutxiagotzeari aurre egiteko erresistentzia jokabideak, hizkuntz komunitateen arteko dinamika, identitate prozesu sozialak, etab. Eta berriro diot ikuspegi antropologikoa hagitz emankorra izan daitekeela.

Dena den, egia erran behar dut: nire lanposturako ez zuten antropologo bat eskatzen. Egia erran, ez dakit gizarte eta kultura antropologia lizentziatura eta doktoretza ikastaroak eginak eduki izanak aukera gehiago eman zidan Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lanpostuaz jabetzeko. Lanpostua eskuratu nuen dakidana dakidalakotz eta horretan antropologiak anitz irakatsi dit. Ez dut dudarik.

⁴ Hizkuntzalaritzak hizkuntz(ar)en galnean duten ikusmolde murrizari lotzen zaizkion hizkuntzalariek erran nahi dut.

Bibliografia

- BARRIOLA Joseba, (1998) "Hizkuntzaren pertzepzioaz", *Ankulegi*, 2: 21-28 or.
- DURANTI Alessandro, (2000) *Antropología lingüística*. Madrid, Cambridge University Press.
- FASOLD Ralph, (1996) *La sociolingüística de la sociedad. Introducción a la sociolingüística*. Madrid, Visor.
- HARRIS Marvin, (1987) *Introducción a la antropología general*. Madrid, Alianza Editorial.
- HYMES Dell, (1993) "Una nueva perspectiva para la antropología lingüística", en Velasco, Honorio M. (comp.), *Lecturas de antropología social y cultural. La cultura y las culturas*. Madrid, Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- JUNYENT Carme, (1998) *Contra la planificació*. Barcelona, Empúries.
- KRAUSS M., (1992) "The world's languages in crisis", *Language*, 68, 1: 4-10 or.
- SÁNCHEZ CARRIÓN José María, Txepetx, (1987) *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. San Sebastián.
- SAUSSURE Ferdinand, (1978) *Cours de linguistique générale*. París, Payot.
- SIGUAN Miquel, (2001) *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madrid, Alianza.
- UNESCO, (2001) *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*.
- WEINREICH Uriel, (1974) *Lenguas en contacto. Descubrimientos y problemas*. Venezuela, Universidad Central de Venezuela.